Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

5457

EBAZPENA, 2009ko irailaren 15ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, goi-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzeko 2009ko diru-laguntzei dagokien ebazpen-proposamena egin eta organo honi aurkeztuko dion Balorazio Batzordearen kideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaera argitara ematen duena.

Ikusirik goi-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituen Kulturako sailburuaren 2009ko ekainaren 23ko Agindua.

Kontuan izanda aipatutako Aginduaren 9. artikuluak, lehenik, Balorazio Batzorde bat osatuko dela xedatzen duela, aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatu ondoren, organo honentzat ebazpen-proposamen arrazoitu bat egin dezan; bigarrenik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak batzorde horretako kide gisa Kirol Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela xedatzen duela; eta, azkenik, batzorde horren osaera argitara eman behar dela xedatzen duela.

Horiek horrela,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitara ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Patxi Mutiloa Aldazabal (Kiroletako zuzendaria).

Batzordekideak:

– Elisabet Altube Bengoa (Kirol Zuzendaritzako arduradun teknikoa).

– Bakarne Agirre Arrieta (Kirol Zuzendaritzako teknikaria), batzordeko idazkari jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 15a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5457

RESOLUCIÓN de 15 de septiembre de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se nombra a las vocales de la Comisión de Valoración encargada de elaborar y, posteriormente, elevar a este órgano propuesta de resolución relativa a las solicitudes de subvención instadas para financiar la participación en competiciones deportivas de alto nivel del 2009, y se da publicidad a la composición de dicha Comisión.

Vista la Orden de 23 de junio de 2009, por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para financiar la participación en competiciones deportivas de alto nivel.

Considerando que el artículo 9 de la citada Orden dispone, por una parte, que se constituirá una Comisión de Valoración para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas y emitir una propuesta de resolución motivada que será elevada a éste órgano; por otra, que el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes designará a dos técnicos/as de la Dirección de Deportes como miembros de dicha Comisión y que se hará pública la composición de dicha Comisión.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Designar a las vocales de la Comisión de Valoración y hacer pública la composición de dicha Comisión. Los miembros de la Comisión de Valoración serán los siguientes:

Presidente: Patxi Mutiloa Aldazabal (Director de Deportes).

Vocales:

– Elisabet Altube Bengoa (Responsable Técnica de la Dirección de Deportes).

– Bakarne Agirre Arrieta (Técnica de la Dirección de Deportes), que actuará como Secretaria de la Comisión.

Segundo.– Ordenar, para general conocimiento, la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de septiembre de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.